

Jarri material hauek bere tokian, naturalak ala artifizialak diren kontutan hartuz:

Urrea plastikoa ura papera harria
beira diamantea, zura, kortxoa, petrolioa

NATURALAK	ARTIFIZIALAK

Osatu esaldi hauek:

a) Apurtzeko zaila bada, materiala oso..... da.

b) Argiak zeharkatzen badu, materiala..... da;

c) Argiak zeharkatzen ez badu,.....da.

GARDENA

ERRESISTENTEA

OPAKUA

Lotu, gezen bidez, materiaren propietateak dagozkien definizioekin.

- | | |
|---------------------|---|
| 1) Erresistentzia | a) Materialen gaitasuna likido baten azalean gelditzeko. |
| 2) Gardentasuna | b) Materiala marrazteko zailtasuna. |
| 3) Flotagarritasuna | c) Beroa materialean zehar transmititzeko gaitasuna. |
| 4) Eroankortasuna | d) Materiala apurtzeko edo deformatzeko zailtasuna. |
| 5) Gogortasuna | e) Argiak materiala zeharka dezakeen ala ez zehazten du. |
| 6) Elastikotasuna | f) Materialaren gaitasuna, hori estutu edo luzatu ondoren, berezko forma berreskuratzeko. |